

## **Euskararen borrokaz zerbait**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-03-28: 2.

Hizkuntzaren balioa neurtzerakoan ez da berdin batxilergoa pasatzeko latina, balio komertzialaz baliatzeko ikasten den ingelesa, edo herri bakoitzaren hizkuntza. Gure auzian ba dira bi: 1) Euskara orain sei mila urte hemen bertan euskaldunek sortua da, gero historikoki toponimian testigutza geratzen joan dena eta zanpaketa luze gordinetan erderekin elbarritzen saiatu diren arren oraindik 800.000 hiztunetan bizi dena. 2) Latin boteretsuaren dialektoetako bat bezala orain 500 urte inguru Gaztelan finkatu zen gaztelera, eta Euskal Herriaren hegoaldean ofizialdu eta agintzen hasi ondoren Euskararekin batera demokrazian gaur legezko egin dena. Baina gatazkan bizi dira. Batez ere erdararen eraginez: gazteleraren inertziak ez du agintea galdu nahi, halaber euskaldunak ez du galdu nahi euskaldun egiten duen euskara. Haientzat ohorea dena, guretzat bizia da. Lehia honetan gazteleraren alde dago hedapena koloniala, baina euskararen alde jatorrizko lehentasuna eta zor zaion bizia osoa; erabateko argudioa du bere alde: hil daiteke lehia honetan. Hiltzen sentitzen garen euskaldunak ez dugu Espainiako eta Ameriketako erdara arriskuan jarriko, baina gaztelerak euskara herri bakarrean, harrokeriaz, bai. Hau da gaurko kinka; bi hizkuntzak bizi daiteke pakean edota intolerantziak euskara arriskuan jarriko gero, gerra da, defentsako gerra. Herritasunaren printzipioa da mugatzaile.